

Ibilalditxoa

...orain, arrats-beheran...

Eguzki jaun gorrizta, egunaren txanpon nagusi:
zuk ni ukitu, eta azala kornea bihurtzen zait,
eta bizkarrezurra ikusmen-nerbio, eta gorputza dardarka
ia lilurapean daukat, darizun urre-jauzia dela medio,
itsaso eta hiri honetan, erdi-itsuturik bainaukazu.
Hemen garai batean baziren etxe-ilarak eta kaleak
–eta badakit oraindik ere hortxe daudela– beste hiri bat
osatuz, ezen ez hau, zeharo eraldatu baituzu.

Ibilian gabilitza itsasertzetik. Prest daude
arrantza-ontziak gauez irteteko,
motorrak eztulka, parafina-lanparak brankan,
eta hiri osoa kanpora irten da paseatzera,
maitaleak elkarri besotik helduta, gazte zaratatsuak,
gurasoak, umeak izozkia janez,
zaharrak kafeetako terrazetan mahai atzetik begira,
eta ilunarekin mendiak hurbiltzen dira, animalia adeitsuen antzo.

Arratsaren distira ezti hori mendien eta badiaren gainean,
zure besoak nirea ukitzen du, nahi gabe,
nire ondoan dabilen neska gazte honek bezala,
gerri zabalak ditu, pauso labur eta erritmikoa,
ilea atzerantz hegan, lepo fina, sorbaldak
udak belzturik, eta oliba nabarrezko irribarrea.
Edan egiten zaitut, argi dardaratia, ardoa edo musika bazina bezala,
nola baitzintuzten edan arbasoek duela milaka urte.

Hiri porotsua, Eleftheria izenekoa;
nahiz eta zure zauriak zure begietako orban grisak izan,
hala ere, une honetan, argia eta argi-gorabeherak
haren aurpegian hitz edo kanta izatera jolasten ari direlarik,
berak du antzinatik eskubide kai honetan ibiltzeko
zure argiaren tresna eta zaintzaile gisa
hura bilduz zure betsein sakonen putzuetan
eta berak du halaber bere dantzaz zu zeharkatzeko eskumena.

Ilunabar maitea, milaka urteko argia,

ahots argiko kantaria, emakume hau bezain ezta,
nola ez ba gurtu nik hiri honen eta jende honen gainera
dakartzun grazia, ukitzen duen oro eta mundu guztia
eskultura bihurtzen duen molde baten antzera?
Zure esklabo bihurtu naiz, are zure herritar.
Eta zu osorik edateko irrikaz, poro bakoitza
zure errainuaz bete nezake, eta haren eskumenez.

Richard Berengarten

Juan Kruz Igerabidek **itzulia**
Translation by Juan Kruz Igerabide

interLitQ.org